



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Niregandik urrun du bihotza”

2021eko abuztuaren 29a
Urteko 22. igandea (B)

Markos 7, 1-8. 14-15. 21-23.

Behin batean, fariseuak eta Jerusalemdik etorritako zenbait lege-maisu hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta konturatu ziren, honen ikasle batzuek otordua esku kutsatuekin egiten zutela, esku-garbiguntza egin gabe, alegia. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute behin ere jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbiguntza egin gabe; eta badute beste hamaika ohiturazko betebeharrak: hala nola edalontzi, pitxer eta suilen garbigoketa.

Horrela bada, galdera hau egin zioten fariseuek eta lege-maisuek Jesusi: -Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokatzen? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?

Jesusek erantzun zien: -Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean: *Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina niregandik urrun du bihotza; alferrik naute gurtzen; hauen irakaspena giza agindu hutsa.*

“Zuek, Jainkoaren agindua bazterrera utzi eta giza ohiturari eusten diozue”. Jesusek berriro jendeari dei egin eta esan zion: “Entzun niri denok eta ulertu ongi! Ez da deus ere, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia”.

Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurreta, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasakeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria guztiok barrutik irteten dira, eta hauek dute gizakia kutsatzen.

“Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina niregandik urrun du bihotza; alferrik naute gurtzen; hauen irakaspena giza agindu hutsa”.

JAINKOAREN ARRANGURA

Jose Antonio Pagola

Galileako fariseu-taldetxo bat Jesusi hurbildu zaio jarrera kritikoa. Ez datoz bakarrik. Lagun dituzte lege-maisu batzuk, Jerusalemetik etorriak, herrixketako landa-jende xumearen ortodoxia defenditzeko kezka, inondik ere. Arriskutsua da Jesusen jardura. Zuzendu beharra dago.

Ohartu dira ezen, kasu batzuetan, Jesusen ikasleek ez dutela errespetatzen arbasoen tradizioa. Ikasleen portaeraz mintzo badira ere, Jesusentzat da galdera; badakite, izan ere, hark irakatsi diela askatasun harrigarri hartaz bizitzen. Zer dela eta?

Isaias profetaren hitz batzuekin erantzun die Jesusek, bere mezua eta jardura oso ondo argitzen duten hitzekin. Jesusek bere-bere egiten dituen hitz horiek arretaz entzun beharrekoak ditugu; hain zuzen, gure erlijioaren funtsa den zerbaiti dagozkio. Profetaren arabera, hauxe da Jainkoaren arrangura edo kexua.

«*Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina bihotza niregandik urrun du*». Hauxe da, beti, erlijio guztien arriskua: Jainkoari ezpain-puntaz kultu ematea, formulak errepikatuz, salmoak esanez, hitz ederrak ahoskatuz; bitartean gure bihotza «*urrun da harengandik*». Alabaina, Jainkoari atsegin zaion kultua bihotzari dariona da, barne-atxikimenduari, gure erabakien eta egitasmoen jaiotze-puntu den pertsonaren barne-barneko erdiguneari dariona.

«*Ematen didaten kultua hutsala da*». Gure bihotza Jainkoagandik urrun dagoenean, gure kultua mamirik gabeko gertatzen da. Bizia falta ohi zaio, Jainkoaren Hitza egiaz entzutea, anai-arrebekiko maitasuna. Erlijioa azaleko zerbait bihurtzen da, ohikeriaz betea, Jainkoari leial zaion bizitzaren fruituak falta dituenak.

«*Irakasten duten doktrina giza agindu da*». Erlijio guztietan izan ohi dira «*gizatar*» diren tradizioak. Arauak, ohiturak, debozioak: kultura jakin batean erlijiotasuna bizitzeko sortuak. On handia egin lezakete. Baina kalte handia egiten dute Jainkoaren Hitza entzutetik arreta gabetzen edo urruntzen gaituztenean. Ez zaie eman behar sekula lehentasuna.

Isaias profetaren aipamena bukatzean, oso larriak diren hitz hauekin laburbildu du Jesusek bere pentsamendua: «*Alde batera uzten duzue Jainkoaren agindua, gizon-emakumeen tradizioari lotzeko*». Giza tradizioei itsu-itsu lotzen gatzazkienean, arrisku hau izan ohi dugu: maitasunaz ahaztu eta Jesusi, Jainkoaren Hitz haragitu horri, jarraitetik apartatzekoa. Kristau-erlijioan lehenengo gauza Jesus da beti eta maitasunerako haren deia. Soilik, ondoren datoz giza tradizioak, inportanteenak iruditu arren. Ezin ahaztu genezake sekula zein den funtsa.